



1. AKTA

2005eko urtarrilaren 24an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko urtarrilaren hogeita lauan.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucia Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 8,30etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 14. eta 15. 04-12-21 eta 04-12-24koak, hurrenez hurren, irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokien akta-liburura transkribatzea.

2.-14/04 eta 15/04 kontu eta fakturen zerrenda.

Pasaiako Gobernu Batzarrak erabaki du ontzat ematea 14/04 eta 15/04 zkak. dituzten kontu eta fakturen zerrendak, BERREHUN ETA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITASEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (214.846,76 euro) eta EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (171.130,75 euro), hurrenez hurren.



3.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei dirulaguntzak. 6. zka. daraman proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2005eko urtarrilaren 13an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 1.479,90 eurokoak. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1812/04 Baimenduaren kontura.

4.- Eskola Kontseiluko partaideei 2. seihilabeteko dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2005eko urtarrilaren 13an egindako proposamenez, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren Ikastetxeei 2004ko bigarren seihileko subentzioa banatzea onzat ematea:

| | |
|---|---------------|
| ➤ KARMENGO AMA H.I..... | 1.884,53 Euro |
| ➤ KARMENGO AMA H.I. GURASO ELKARTEA..... | 1.377,53 Euro |
| ➤ PASAIA-LEZO LIZEOA..... | 4.577,84 Euro |
| | <hr/> |
| GUZTIRA..... | 7.839,90 Euro |

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partidaren eta A-1658/04 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin..

5.- Inauteri Jaiak direla eta 2005eko gastuentzat aurrerapena.

2005eko Inauteri Jaiak direla eta Barrutietako Jai Batzordeek hainbat jarduera bultzatzeko, Tokiko Gobernuaren Batzarrak 2005eko urtarrilaren 18an egindako proposamenez eta bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Aipatu Batzordeei hurrengo subentzioak ematea:



| | |
|-----------------|-------------------|
| Pasai San Pedro | 600 euro |
| Pasai Donibane | 600 euro |
| Pasai Antxo | 3.086 euro |
| Trintxerpe | 3.086 euro |
| GUZTIRA | 7.372 euro |

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-14/05 Baimenduaren kargura.

6.- "Trintxerpeko "Villa Ana Mary"ko Exekuzio Unitatean urbanizazio osagarria" obraren 4. (azkena) ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 4 (azkena)

Obra: "Trintxerpeko "Villa Ana Mary"ko Exekuzio Unitatean, urbanizazio osagarria".

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Arkitektoa) eta Jose María Irazusta j. (Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO (14.885,45 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-687/04 Disposamenduaren kargura.

7.- "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea" obraren 7. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 7

Obra: "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j.

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA ZAZPI MILA BOSTEHEUN ETA HOGEI EURO ETA LAUROGEITASEI ZENTIMO (27.520,86 euro).



Indarreango udal aurrekontuko D-378/04 Disposamenduaren kargura.

8.- Euskadi Etorbidea, 27an obrak legeztatze eskaera.

Ana Lertxundi Zugasti and.ak 2004ko uztailaren 30ean bere etxebizitzan (Euskadi Etorbidea, 27-4. Esk.) egindako obra legeztatze eskaera egin zuen, zehazki ondokoa: etxebizitzara sartzeko atea mugitzea.

Kontuan hartu dugu Pasaiako Udal Ordenantzen 072.4 b) artikulua eta udal zerbitzu teknikoen txostenaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Ana Lertxundi Zugastiri bere etxebizitzan egindako obra txikia legeztatze lizentzia ukatzea eta egindako obra botatzeko agintzea, hain zuzen ere ondokoa: sarrerako atea mugitzea.

BIGARRENA.- Udalak baimena eman dezake sarrerako atea mugitzeko, baldin eta horrek ez badu eragozten alboko etxebizitzako leihoa handitzea edo kontraleihoak jartzea.

HIRUGARRENA.- Ez da egokia udal eskubideak likidatzea, izanere, hirigintzako legezkotasuna berrezartzeari dagokiona likidatu zitzea.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

9.- Aztiko bulego-erakinean solairuartea eraikitze eskaera.

Azti fundazioak 2004ko azaroaren 24an proiektu bat aurkeztu zuen La Herrerako kaian dagoen bulego-erakinean solairuartea bat eraikitze, Jesús Azpiroz Aizpurua arkitektoak idatzia eta 2004ko azaroaren 19an ikus-onetsia.

Zehazki ondoko lanak eginahi dituzte: Aztiko erakinean solairuartea bat egin, 12,85 x 3,45 m-koa, altzaruzko profilekin eta zoladuran fenolezko taulekin. Solairuartea eta beheko aldea agirien artxiborako erabili nahi dute. Beheko altuera librea 2,06 m-koa da eta goikoa 2,13 m-koa.

Udal arkitektoak lizentzia ematearen aurkako txostena egin du.

Obra egiteko aurrekontua 16.249,95 eurokoa da.

Hirigintzako Ordenantzen 097. Artikuluak ondokoa xedatzen du:

3.3. KAPITULUA: *ERABILERA ETA ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAK INDUSTRI ERABILERA KO PARTZELETAN.*

...

3.3.2. SEKZIOA. *ERAIKUNTZARAKO BALDINTZA OROKORRAK.*

...

097. Artikulua. *ALTUERAK ETA PROFILA.*

...

- 4.- Halaber, eta kasu bakoitzean ezarritako erabilera-baldintzak eta altuera eta probetxamendu-mugak betetzearen kaltetan gabe, 5,00 metrotako gutxienezko altuera librea duten lokaletan oinarre edo goitegi bat eraikitzea baimentzen da.
- 5.- Goitegi eta oinarreak ez dira lokalaren azaleraren %30 hartzera iritsiko. Ordenantza hauen 074.8 artikuluan esandakoari jarraituko zaio.

Bestalde, 074. Artikuluak ondokoa ezartzen du:

074. Artikulua. BESTELAKO ERABILERA BAIMENDUAK HARTZEKO ERABILIKO DIREN LOKALEI APLIKATU BEHARREKO BALDINTZAK.

8.- Goitegiak.

- a) Lokalaren zati osagarri eta zatietzinak izango dira, fincara edo beste finka batera aterabide independenterik gabeak eta erregistrorako unitate bakarra osatuko dute lokal nagusiarekin.
- b) Gutxienezko altuera librea 2,25 metrotakoa izango da eta eskusiboki erabili ahal izango dira bainugelak edota bulegoak, biltegiak jartzeko.
- Kasuan kasu altuera hori aldatzerik izango da egiturako elementuekin (habe eta gapirioak), instalaziekin etab.; baldin eta elementu horiek ez badira 1,95 m baino beherago geratzen.*
- c) Egiturazko elementuek, instalazioek eta abarrek beharrezkoa egiten dutenean, altuera hori 1,95 metroraino murriztu ahal izango da gehienez.
- d) Gehienezko azalera ez da lokalak duenaren %30a baino handiagoa izango. Goitegira joateko eskailerak okupatzen duen azalera ez da konputatuko aipatu %30 horren kalkuluan.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Azti fundazioari lizentzia ukatzea La Herrerako kaian dagoen bulego-eraikinean solairuarte bat eraikitzeko; ez direlako betetzen Hirigintzako Ordenantzetan ezartzen diren gutxienezko altuerak.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazio ondoren.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

10.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) M^a Cruz Etxebeste Goiburu andreak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik MARIA CRUZ ETXEBESTE GOIBURU andreak aurkeztu erreklamazioa (bere izenean, MAPFRE-k, Aseguru Mutualitateak), 2004ko urriaren 23an SS-165-AS matrikuladun ibilgailuan eragindako kalteak direla eta, Pasai Donibaneko kai aldean, haizeak botatuko hesi baten eraginez,



Portuko Agintaritzak autoak aparkatzeko gaituta daukan eremuan, Udalari 506,75 euro erreklamatu.

Eta ikusirik kalteen inporteak ez duenez Erantzukizun Zibil Orokorraren polizan estipulatutako frankizia gainditzen, Gobernu Lokalaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MARIA CRUZ ETXEBESTE GOIBURU andreari 506,75 euroko kantitatea ordaintzea, indarreango udal aurrekontuko A-17/05-aren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) M^a Luis Berrondo Imaz andreak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik **MARIA LUISA BERRONDO IMAZ** andreak aurkeztu duen erreposizio errekurtsioa Gobernu Lokalaren Juntak 2004ko urriaren 27an hartutako akordioaren aurka, zeinen bidez gaitzetsi egiten baitzen Pasai Antxon San Fermin jaietan karrozen desfileko azken karroza pasatu ondoren balizamenduko zintarekin estropozu egin eta 2004ko uztailearen 11n erori zelako aurkeztutako erreklamazioa.

Ikusirik errekurtsioan ez direla desbirtuatzten Ondare Erantzukizunaren gaitzespena motibatu zuten arrazoiak, erreklamatuak gainera aitortzen duelarik ez dakiela gauzak nola gertatu ziren, eta lekukoek ere ez dutela berretsi gertatuen hasierako bertsioa, hau helegileak 2004ko uztailearen 23ko idazkian egin, Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- GAITZESTE **MARIA LUISA BERRONDO IMAZ** andreak Gobernu Lokalaren Juntak 2004ko urriaren 27an hartutako akordioaren aurka aurkeztu erreposizio errekurtsioa.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

C) Gure Zumardiko 5 zka. daraman etxeko Jabekideek egindako ondare erreklamazioa.

2004ko irailaren 23an Gure Zumardiko 5 zka. daraman finkaren Administrazioak erreklamazio bat aurkeztu zuen eraikinean azken 2 urteotan ematen ari diren hodieriak buxatzeari buruz.

Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Sailaren txostena aurrez emanik, Gobernu Lokalaren Juntak 2004ko urriaren 27an egindako bileran erabaki zuen erreklamazioa gaitzestea.



2004ko abenduaren 24ko sarrera datarekin, aipatu eraikineko jabeen komunitatearen Administrazioaileak aurkeztu zuen Erreposizio Errekurtsoa Gobernu Lokalaren Juntak hartutako akordioaren aurrean eta aipatu akordioaren anulazioa eskatu zuten; eragindako kalteetan Udalak izan duen erantzukizuna aitortzea; funtzionamendu normalaren egoerara itzultzea eta, ondorioz, 1.690,44 euroko kantitatea abonatzea.

Kontuan izanik, dena dela, ekintzaren preskripzioa gauzatuko zela zeren eta 2004ko irailaren 23ko bere idazkian seinatzen baita “gisa honetako gertaerak” azken 2 urteetan, eta martxoaren 26ko RD 429/1993ko 4. artikulua araberako urtebeteko epe maximoa pasatua izango zelako, zeinen bidez onartu baitzen ondare erantzukizunari buruz Herri Administrazioen prozeduren Arautegia.

Kontuan izanik ez dela kreditatu eta ez dela proposatu inolako frogarik adieraziko lukeenik kaltearen jatorria udal obran aurkitzen dela, Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Gure Zumardiko 5eko finkaren Administrazioak Gobernu Lokalaren Juntak hartutako gaitzespen akordioaren aurka aurkeztu duen erreposizio errekurtsua GAITZESTEA.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsuak seinatuz.

D) Juan Carlos Abal Saletaren ordezkartzan, Génesis Seguros Generales, S.A.-k egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik JUAN CARLOS ABAL SALETAREN ordezkartzan, GÉNESIS SEGUROS GENERALES, S.A.-k egindako ondare erreklamazioa 6443 CJX ibilgailuaren hagunean eta pneumatikoan eragindako kalteak direla eta, San Markos errepideko 28-30 zenbakien parean, galtzaran zeuden zulotzarretan sartzean, kalteak 282,23 euroko kantitatea osatzen duelarik; ikusirik Udaltzaingoa txostena, Pasai Antxoko saihebidetako obren barruko desbio bat delarik, obren exekuzioaren titularra Gipuzkoako Foru Diputazioa da eta honengana jo beharko du.

Halaber Hirigintzako Udal Sailari txostena eskaturik 1939ko mugaketari buruz, gertaeren lekua Donostiako udalerrian egongo litzateke nahiz eta udal honek uste izan mugatze horrek ez dituela udalerraren mugak ongi zehazten, Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez



ERABAKI DU

LEHENENGO.- GÉNESIS SEGUROS GENERALES, S.A-k JUAN CARLOS ABAL SALETA aseguruaren izenean formulatu erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekursoekin.

E) Pedro M^a Hernández Lancherasen izenean Munak seguros Generales-ek egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik MUNAT SEGUROS GENERALES-ek PEDRO M^a HERNÁNDEZ LANCHAS aseguruaren izenean egindako erreklamazioa SS-7469-AX ibilgailuaren hagunean eta pneumatikoan 2003ko azaroaren 13an izandako kalteak direla eta, San Markos errepideko 28-30 zenbakien parean, galtzaran zeuden zulutzarretan sartzean, kalteak 282,23 euroko kantitatea osatzen duelarik; ikusirik Udaltzaingoaren txostena, Pasai Antxoko saihesbideko obren barruko desbio bat delarik, obren exekuzioaren titularra Gipuzkoako Foru Diputazioa da eta honengana jo beharko du.

Halaber Hirigintzako Udal Sailari txostena eskaturik 1939ko mugaketari buruz, gertaeren lekua Donostiako udalerrian egongo litzateke nahiz eta udal honek uste izan mugatze horrek ez dituela udalerrian mugak ongi zehazten, Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MUNAT SEGUROS GENERALES-ek PEDRO M^a HERNÁNDEZ LANCHAS aseguruaren izenean formulatu erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekursoekin.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9,00etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.